

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

259

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 7koa, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariarena, zeinaren bidez laguntzak ematen baitira 2019-2020 ikasturtean zehar atzerriko hizkuntza indartzeko, heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei.

AURREKARIAK

2019ko urriaren 8ko Aginduan (urriaren 11ko EHAA, 194. zk.), heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei laguntzak emateko prozedura eta irizpideak arautu eta ezartzen dira, 2019-2020 ikasturtean atzerriko hizkuntza indartzeko.

Behar diren espedienteak aztertuta, 11 eskabide jaso dira. Bertan, 15 talde proposatzen dira, 1.251 eskola-ordu emateko.

2.1 artikulua ezartzen du 100.000 eurokoa dela aurrekontu-hornidura.

2.2 artikulua ezartzen du, gehienez, 40 euroko laguntza emango dela baimendutako talde bakoitzean emandako ordu bakoitzarengatik. Halaber, 16.2 artikulua arabera, guztira eman beharreko zenbatekoak gainditzen badu 2.1 artikuluan ezarritako aurrekontu-hornidura, erakunde onuradun bakoitzari emango zaion zenbatekoa proportzioan egokituko da baimendutako taldeen arabera, harik eta laguntza guztiak moldatu arte aurrekontu-hornidurara.

Baimendutako talde guztien eskola-orduen kopurua bider 40 euro egiten badugu, aterako zaigun zenbakia eragiketaren emaitza deialdiaren aurrekontu-hornidura baino txikiagoa izango da. Hori dela eta, dirulaguntzaren kopuruaren gehieneko kopurua esleitu behar da, hau da, 40 euro ordu bakoitzarengatik.

Horregatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Eranskinean aipatzen diren ikastetxeei dirulaguntzak ematea. Ondoan dirulaguntzen zenbatekoak adierazita daude.

2. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, herritar oro jakitun egon dadin.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal zaio Lanbide Heziketako sailburordeari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 7a.

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria,
RIKARDO LAMADRID INTXAURRAGA.

2020ko urtarrilaren 21a, asteartea

ERANSKINA

EMANDAKO LAGUNTZAK

Ikastetxea	NAN/IFZ/AIZ	Ikastetxe-kodea	Talde kopurua	Orduak	Dirulaguntza eurotan
CPES CDEA BHIP	B20676680	12497	1	80	3.200,00
CPES Elizaran Ikastetxea BHIP	G20997714	12566	1	80	3.200,00
CPES Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola BHIP	F20057865	12593	2	160	6.400,00
CPES Urola Garaiko Lanbide Eskola BHIP	G20567327	12742	2	200	8.000,00
CPES Oteiza Lizeo Politeknikoa BHIP	G20884417	12746	1	80	3.200,00
CPES Almi BHIP	A28814531	14615	1	80	3.200,00
CPES Maristak Durango BHIP	R4800505B	14728	2	160	6.400,00
CPES Somorrostro BHIP	R4800613D	14779	2	171	6.840,00
CPEIPS Zabalburu HLBHIP	F48119309	14718	1	80	3.200,00
CPEIPS SanViator HLBHIP	G95426797	14824	1	80	3.200,00
CPES Harrobia BHIP	F95164273	15305	1	80	3.200,00
EAE guztira		-	15	1.251	50.040,00